

MONDRAGON KOOP.E. GENERO BERDINTASUN PLANA *2022-2024*

MONDRAGON



GIZATASUNA
LANEAN

Finantzak
Industria
Banaketa
Ezagutza



HELBURUA

Erakundearen egituran eta prozesuetan genero ikuspegia txertatzea, kolektiboaren sentsibilizazioaren eta prestakuntzaren bidez.

1. URRATSA

2021 otsaila

- Zuzendaritza eta Kontseilu Errektorearen konpromisoa
- Berdintasun Batzordea eratzea

2. URRATSA

2021 otsaila-urria

- Diagnostikoa
- Hasierako formazioa

PROZESUA

3. URRATSA

2021 azaroa - abendua

- Planaren diseinua

4. URRATSA

Abendua 2021- urtarrila 2022

- Plana onartzea eta abian jartzea

5. URRATSA

2022 martxoa

- Barne komunikazio eta zabalkundea



ZUZENDARITZA ETA KONTSEILU ERREKTOREAREN KONPROMISOA

AKORDIOA:

4.1 MONDRAGON Corporación Cooperativa, Koop.E.ak konpromiso esplizitua hartzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arlorako, lan baldintzetarako, barne antolamendu eta funtzionamendurako eta zerbitzuak emateko, bai eta inguruneko beste entitate batzuekiko harremanetarako ere.

4.2 MONDRAGON Corporación Cooperativa, Koop.E.an Berdintasun Plana diseinatu eta inplementatzea eta emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko lan prozesua ezartzea, diagnostikoan detektatu daitezkeen genero-arrakalak gutxitzeko eta ibilbide bat erakusteko erakundeak hobera egin dezan, lan baldintzetan, barne antolamendu eta funtzionamenduan eta zerbitzuak ematerakoan, bai eta inguruko beste entitate batzuekiko harremanetan, entitatean lan egiten duten pertsonen partaidetzarekin.

Konpromiso honek eskatzen du pertsonak partehartzaile aktiboak eta protagonista izatea hausnarketa-prozesuak egiterakoan eta erakundearen aldaketa eraginkorrak ezartzerakoan.

Konpromiso horrekin, halaber, lan-prozesura ekarri behar dira emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostiko eta plan hobea egiteko informazio guztiak, eta kooperatibako bazkide, langile eta organo ezberdinen ordezkarien parte-hartzea eta kontsulta erraztu behar dira.

Kudeaketari, lan-harremani eta jarduerari buruzko informaziorako sarbidea duten langileek eta emakumeen eta gizonen berdintasunean prestakuntza duten eta jasotako datuen nahiz tresnak ematen dituen emaitzen gaineko genero-analisi egokia egin dezaketen barruko edo kanpoko pertsonak esku hartzea ahalbidetu behar da, kudeaketa aurreratuko ereduaren esparruan.



BERDINTASUN BATZORDEA

OSAKETA



HELBURUA

Plana ezarri, jarraipena egin eta ebaluatu.

FUNTZIONAMENDUA

1. Aurreikusitako ekintzak aurrera eramateko eta planaren jarraipena egiteko hiru hilean behin bilerak egingo dira.
2. Planaren betetze maila ezagutzeko ebaluazioa egingo da eta urtearen amaieran planaren jarraipenaren berri emango zaie organoei.



HASIERAKO FORMAZIOA

2 formazio saio antolatu ziren eta gai hauek jorratu ziren:

- Genero berdintasunarekin eta emakumeen ahalduntzearekin lotutako funtsezko kontzeptuak.
- Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun moduen berrikuspen historikoa.
- Genero berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko mekanismoak.



DIAGNOSTIKOA

PROZESUA

1. MUGARRIA

Pertsonen kudeaketari buruzko informazioa bildu, kuantitatiboa eta kualitatiboa.

2021/12/31ko datuak.

2. MUGARRIA

Kolektiboaren iritzia jasotzeko online **galdetegia**.

Partehartzea: emakumeak %85 eta gizonak %95.

3. MUGARRIA

Kolektiboaren lagin bat **elkarrizketatu**, bere bizipen eta iritzia jasotzeko.

9 elkarrizketa: 5 emakume eta 4 gizon.



PLANAREN DISEINUA

2022-2024 GENERO BERDINTASUN PLANEKO ekintzak
3 ardatz nagusiren inguruan hedatuko dira.

LIDERGOA, POLITIKAK ETA KULTURA ALDAKETA

- Konpromisoa eta gobernu ona

PERTSONAK

- Barne komunikazioa eta partehartzea
- Formazioa eta sentsibilizazioa
- Pertsonen kudeaketa
- Lan osasuna

GIZARTEAREKIKO ETA INGURUNEAREKIKO HARREMANA

- Irudia eta kanpo komunikazioa



AGINTE PANELA

PROZESU ADIERAZLEAK

- Bazkideen eta langileen prestakuntzan eta sentsibilizazioan inbertitutako orduak.
- Prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzetan parte hartu duten emakumeen eta gizonen ehunekoa.
- Urteko ekintzen betetze maila.

INPAKTU ADIERAZLEAK

- Kooperatibako emakume eta gizon kopurua eta ehunekoa.
- Zuzendaritzan, tarteko mailan eta maila teknikoan dauden emakumeen eta gizonen ehunekoa.
- Kontratazio berrietan emakume eta gizon kopurua.
- Barne sustapena izan duten emakume eta gizon kopurua.
- Erakundeko soldata arrakala (plangintza aldi estrategiko bakoitzean behin neurtuko da).



PLANA ABIAN JARTZEA

2021 ABENDUA - 2022 MARTXOA

- Zuzendaritzaren eta Kontseilu Errektorearen onarpena.
- Martxoaren 8.
 - ✓ Planaren eta diagnostikoaren zabalkundea.
- Departamentuetako bilerak.

2022 APIRILA – 2022 ABENDUA

- Informazioa partekatzeko online espazioa. [Ezagutu](#)
- Datu kuantitatiboak sistematikoki biltzeko prozedura.
- Komunikazioari eta irudiari buruzko gidak.
- *Ad hoc* formazioa.
- Bestelakoak: harrera plana egokitzea, informazio pilulak...

ESKERRIK ASKO

MONDRAGON



**HUMANITY
AT WORK**

Finanzas
Industria
Distribución
Conocimiento